

## UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

Talde Popularraren bozeramaile Baroja Corominas Fisasek, indarrean den Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta Haizearen Orraziko irisgarritasun proiektuaren gaineko mozio aurkeztu nahi dio alkateari, Eneko Goia Lasori, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) azter dadin.

### JUSTIFIKAZIOA

2019ko urriaren 14an, Gune Publikoaren Batzordean(Obrak eta Hiri Zerbitzuak), hilabete hartan bertan Haizearen Orraziaren ingurua birgaitzeko osoko plana aurkezteko konpromisoa hartu zuen Udal Gobernuak. Plan horrek, mugikortasun murriztua duten pertsonen hiriko monumenturik enblematikoenetako batera jotzeko modua bermatu behar zuen.

Bost hilabete joan dira harrezkero eta Udal Gobernuak oraindik ez du plan hori aurkeztu, oraindik lortu ez dituen baimen batzuen zain daudela esanez.

Hamar urte baino gehiago daramatzagu Haizearen Orraziaren irisgarritasunaz hitz egiten, eta proiekturik ere zaie aurkeztu oraindik herritarrei. Hiri proiektu bat dugu hau, herritarrei aurkezteko baimen administratiborik behar ez duena, borondate politikoa besterik.

Hala, udal gobernu hau donostiar guztiek gehien maite duten txokoetako baten irisgarritasuna bermatzeko gauza ez dela ikusirik, hau da gure

## KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Haizearen Orraziaren irisgarritasuna bermatuko duen proiektu bat aurkezteko bi hilabete baino lehen.
2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio kronograma zehatz bat ere sartzeko proiektu horretan, eta han jarritako epeak betetzeko konpromisoa hartzeko.

Donostian, 2020ko otsailaren 20an

Borja Corominas Fisas

PP udal taldearen bozeramailea